


Geurea: Euskal Unibertsitate
Publikoa eta Duina





Geurea: Euskal Unibertsitate Publikoa eta Duina

Gure unibertsitatea aldaketa sasoian dago. Garrantzia berezia duten aldaketak gertatzen ari dira unibertsitateko hezkuntza sisteman eta irakasleen esparru zehatzean: aldaketa sozial, teknologiko eta lan aldaketak direla medio, beste formazio behar batzuk sortu dira; Goi Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeak abantaila eta arazok ekarri ditu; Euskal Unibertsitatearen Sistemaren Legeak, hein handi batean oraindik ere garatzeaz dagoenak, funtzionarioekiko paraleloa den irakasle kontratatuak sortzeko bidea ematen du; Unibertsitatearen Lege Organikoaren erreforma berriaren bidez aldaketak sor daitezke; hizkuntza normalizazioan beste prozesu bati ekiteko beharra dago; eta, azkenik, besteak beste, sindikalgintzaren eraginak sor ditzakeen aldaketak ere ezin ditugu ahaztu (irakasle laboralen lan hitzarmena, irakasleen osagarri gehigarriak...).

Eta unibertsitatea ez dago gure testuinguruan gertatzen ari diren aldaketa eta erronketatik kanpo: nazioarteko desoreka edo ingurugiroa mehatxatzen dutenetatik hasi eta gertukoago daukagun Euskal Herriko egoera politikora arte.

Kontu horiek guztiek, barrukoek zein kanpokoek, gure unibertsitateak duen zerbitzu publiko izaeran eragiten dute eta, baita gure sindikalgintzaren izaera eta ekintzen oinarrian ere. Sindikalismoa **unibertsitatea, instituzio gisa, den zerbitzu publikoaren** menpe egon behar da. Honenbestez, ekintza sindikalaren oinarria den irakasleen lan baldintzen hobekuntzaren defentsa ikuspuntu honetatik arrazoitu eta garatu behar da. Eta, alor akademikoari zor zaion errespetu guztiarekin, unibertsitateko sindikalismoak ez luke, gainera, lan baldintza edo ordainsari hobekuntzen aldarrikapenera bakar-bakarrik murriztu beharko. Parte hartu behar du – eta bere parte hartze abangoardista izan behar da- UPV/EHU, ezagutzaren instituzio publiko gisa, eraikitzen eta garatzen: *eman ta zabal zazu*.

Horregatik, **STEE-EILAS**-ek Euskal Unibertsitate Publikoaren duintasunean oinarritzen du bere ekintza sindikala.

1. LAN DUINTASUNA: IRAKASKUNTZA ETA KALITATEZKO IKERKETAREN BERMEA

Unibertsitateak gizarteari ikerketa eta irakaskuntza zerbitzu duina eskaini behar dio. Horretarako ezinbestekoa da lanean ari den irakaslearen baldintzak ere duinak izatea. Eta oraindik ere oso oinarrizkoak diren zenbait kontu konpondu gabe daude eta badaude, bereziki, guztiz bidegabeak diren egoerak; egoera horiek, gainera, epe ertainean gure hezkuntza sistemaren gaitasuna honda dezakete.

Negoiazio sindikalari dagokionez, gaur egun, irakasleak bi taldetan banatuta daude: alde batetik, langile funtzionarioak eta kontratatu administratiboak (LRUko “irakasle lagunak”); eta bestetik, Unibertsitatearen Lege Organikoaren bitartez sortutako langile laboralak.

1.1. Irakasleen osagarri gehigarriei buruzko Akordioa

Joan den uztailaren 19an, **STEE-EILAS** eta LABek Talde Errektorala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin akordioa sinatu genuen eta, akordio honen bitartez, “euskotramoen” sistema ordezkatu egiten da. Horrek, lehenengo aldiz, osagarri sistema irakasle eta ikerlari guztiei

zabaldu du (lehen irakasle funtzionarioentzat soilik baitzen). Gainera, soldata nabarmenki hobetzen da (gutxienez 3.750 € eta 2005era arteko atzeraeragina) “euskotramoen” sistematik kanpo geratu zirenentzat edo bakarra kobratzen zutenentzat.

Egia da –eta bidezkoa iruditzen zaigu– hobekuntza honek sarrera txikia dutenei egin diela batik bat mesede, eta egia da “euskotramoekin” osagarri maila handienak jasotzen zituztenen igoera txikiagoa izan dela. Baina azken irakasle horiek oso sarrera duinak dituzte eta, esate baterako, Hezkuntza Ertainetan daudenek baino gehiago irabazten dute. CCOO sindikatuaren izaera oso ondo deskribatzen du azken gertaera hau manipulatzeko egiten ari den ahaleginak; izan ere, sinatutako akordioa “euskotramoen” sistemarekin erkatuta atzera pausoa balitz bezala agertzen saiatzen ari da, “euskotramoen” sorreran beraiek zeresan handia izan zutelako, hain zuzen ere. Kontrakoa demostratzeko, nahikoa da “euskotramoekin” norberak jasotzen zuena gaur egun jasotzen duenarekin konparatzea (ikus koadroa gaztelaniaz).



Hemendik aurrera gelditzen zaiguna zera da: irakasleentzat onuragarrien diren parametroetan lehen bait lehen indarrean jar dadila ikuskatzea eta egin-kizun honetan gure sindikatuak konpromisoa hartu du.

1.2. LRUko irakasle asoziatuak

Lehen aipatutako bi taldeetako lehenengo taldeko irakasle lagun “tradizionala” dagoeneko laborala izan beharko litzateke, orain dela bi urte luzeko Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen arabera. Baina denbora honetan guztian Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez ditu arautu, ezta garatu ere, lege horretan jasotzen ziren figurak. Garapen hori, gainera, irakasleen zati garrantzitsu bati egonkortasuna emateko baldintza zen. Orain dela gutxi, Espainiako gobernuak Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen hainbat artikuluren kontrako errekurtsioa kendu du, besteak beste, II xedapen iragankorrari zegokiona eta horrek irakasle horiek irudi laborala iraunkorretan bihurtzea ahalbidertzen du.

STEE-EILAS-entzat lehentasunezko helburua da bide hori gauzatzea, egonkortasuna eskuratzen doan irakasleari xedapena zabaltzeaz batera. Gaur egun indarrean dagoen Unibertsitate Lege Organikoaren erreformak ezin du atze-

ratu Eusko Jaurlaritzak irakasle laboralen berezko irudiak garatzea; izan ere, horiek ahalbideratuko dute euskal gizartearen beharrei erantzutea.

Irakaskuntza eta ikerketa duintzeko batez ere irakasleen kolektibo honek jasaten duten diskriminazioa bukatu egin behar da. Diskriminazio ekonomikoak dira, besteak beste; izan ere, irakasteagatiko bosturteko eta ikerketeagatiko seiurtekorik gabe jarraitzen dute, baita doktore direnen kasuetan ere. Diskriminazio akademikoa ere bai, izan ere, funtzionarioen aldean euren ordezkapen proportzionala oso txikia baita unibertsitateko atal guztietan, eta gainera, ezin dute izan kide bakarreko organokoetako partaide.

1.3. Irakasle laboralak

2001eko Unibertsitatearen Lege Organikoak sortutako irakasle laboralak gaur egungo plantillaren laurdena dira ia. Aurreko hauteskunde sindikaletan 9 ordezkari izan zituzten eta oraingoetan 23, gainontzeko irakasleek baino bi gutxiago bakarrik. Baina alor honetan ikertzaile gazteen artean kontratazio partzialak, ezegonkorak eta gaizki ordainduak dira nagusi.

Bestalde, ezinbestekoa da langile gazte horiek euren etorkizuna garbi ikustea.

Zalantzarik gabe, formazio ona jasotako belaunaldia da eta gure unibertsitatea hobetzeko aukera eskaintzen dute. Gure unibertsitate publikoaren kalitate eta duintasunaren erronkan, giza baliabide hau oso aktibo baliotsua da, baina gure unibertsitatea hobetzeko lan egiteak merezi duela demostratu egin behar diegu, etorkizunean bertan gelditzeko aukerak izango dituztela erakutsiz.

Uztailaren 19an sinatu genuen osagarri gehigarriari buruzko akordioaren baitan dago, besteak beste, Hezkuntza, Uni-bertsitate eta Ikerketa Sailaren konpromisoa 2006 urteko bukaera baino lehenago irakasle laboralaren ordainsari sistema negoziatzeko.

Prozesu hori hasi da jada eta Departamentuak gaur egungo egoera islatzen duen zirriborro bat aurkeztu du. Zirriborro horrek jasotzen ditu, berrikuntza handi gisa, irakasle laboral iraunkorren irakaskuntza eta ikerketagatiko osagarriak, bosturteko eta seiurtekoen baliokide direnak.

Gure aldetik, osagarri horiek sortzeari ondo deritzogu, hain zuzen ere, irakasle funtzionario eta laboralaren arteko diskriminazioak gainditzeko beste pauso bat delako, **STEE-EILAS**ek aspaldi aldarrikatzen zuen bezala, baina ez

gaude ados aurkeztu duten zirriborro horrekin. Gure ustez, ez diskriminatzearen printzipioaren arabera, irakasle laboralari gutxienez hezkuntza ertain-tako langile baten ordainsaria dagokio, funtsean, Eusko Jaurlaritzako langileak direlako. Eta kontratu partzialei dagokienez, gure ustez, ordainsaria lanpostu finko bateko dedikazio ordu horiei dagokien proportzioan izan beharko litzateke. Baldintza horiek guztiak gutxieneko lan duintasuna dute oinarrian irakaskuntza edo ikerketak duintasun berekoa izatea bermatzeko. Hori guztia lortzea posible da Eusko Jaurlaritzak bere eskuduntzak erabiltzen baditu eta berezko irakasle irudien aldeko apustua egiten badu.

Bada, irakasle laboral horien artean, unibertsitatearekiko dedikazio eksklusiboa duen kopuru esanguratsu bat. Baina kontratu partziala bakarrik daukate eta lan prekarietate egoera latza eta iraunkorra jasaten dute. Irakasle gazteak izaten dira eta UPV/EHUK ez die eskaini irakaskuntza edo ikerketan sartzeko beste modurik. Lehentasunezkoa da kontratu horiek lanaldi osora pasatzea justizia arrazoiengatik. Baina, gainera, baita gure unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa zerbitzu duina irizpide gisa aldarrikatzeagatik ere.



1.4. Irakasleak gaztetzeko premia

Lanaldi partzialeko kontratuak izatea batez ere irakasle gazteen aukera nagusia etorkizunari begira izan daitekeen mehatxurik txarrenaren arazoaren isla garbia da: kontratu finko berriak ez izatea, alegia. Kasu batzuetan baliteke gaur egungo langileak nahiko izatea irakaskuntz eskariak betetzeko. Baina unibertsitateak ezin du bere gain hartu urteak eta urteak iraungo duen pitzadura zabaltzea modu eksklusiboan lan egingo duten irakasleak kontratatu gabe. Are gutxiago doktorego tesiak egiten edo ikerketa proiektuetan ari diren gazte kopuru esanguratsua dagoenean. Gisa horretako pitzadurak irakasleen eta ikerketa taldeen berritzea mehatxatuko luke. Gaur egun hain modan dagoen “kalitatearen” berrikuntzak badirudi ez duela ezagutzen langileak zaharkitzea dela, hain zuzen ere, unibertsitate kalitateak daukan mehatxurik handiena.

Goi Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeko prozesuan ere, langileak gaztetzeko guztiz beharrezkoa izango da. Irakasle lanpostu berriak sortu beharko dira: alde batetik, Goi Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeko sortuko diren irakaskuntza eredu araberako ikasle taldeen kopuruarengatik; eta bestetik, irakasleek eredu

pedagogiko berri horren aurrean formatzeko eta birziklatzeko izango duten beharrengatik, baita teknologia berriak gehiago erabiltzeagatik ere. Goi Hezkuntzaren Europar Eremura kosturik gabe egokitzea iruzur galanta izango litzateke. Agerikoa da egoera ezberdinak daudela, baina “holgurarik” gabeko sailetan edo langile “holgura” txikiko sailetan behintzat, baita euskal adarrean ere, irakaskuntzaren duintasuna zalantzazkoa izango litzateke kontratu berririk gabe.

Irakasleak gaztetzeari buruzko arazoa gaur egungo arazoa da, gaurkotasan handikoa; ez da etorkizuneko auzia. Honek instituzio, unibertsitate administrazio eta sindikatuen arteko akordioa zabala eskatzen du, neurri ugari bilduz, hala nola, aurre-erretiroak, errelebu kontratuak, gaur egungo langileak birziklatzeko urte sabatikoak, hutsik gelditzen diren plaza elebakarrak elebidun gisa jartzea, etab. **STEE-EILAS**ek konpromisoa hartzen du, eta lehentasuna ematen dio, guztion arteko akordio zabala lortzeari.

1.5. Unibertsitate Eskoletako irakasleak

Unibertsitatearen Lege Organikoaren erreforma proiektuan “Unibertsitate Eskoletako Titularren” irudia desagertu

egin da. Irakasle hauek Irakasle Titular irudira igarotzea proposatzen du, doktorego tesia, eta dagokion akreditazioa lortu ondoren, edo bere horretan gelditzea betirako. Errealitate horri dagokionez, ezinbestekoa deritzogu aipatutako egoeran dauden irakasleek, eskoleta-koak zein fakultatetakoak, aldaketa burutzeko beharrezkoak diren neurriak izatea eskura (tesia egiteko liberazioa, ikerketa egiteko laguntzak...), baita beraien irakaskuntzako lanaldia 30 kredituetara benetan murriztea ere datorenen ikasturteari begira.

STEE-EILASen Eskola eta Fakultateen arteko aldea gainditzea eta eskaini beharreko titulazioa ikastetxeen esku uztea, aldarrikatu izan dugu beti. Goi Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeko beharrezkoa den erreforman, ikastetxe guztiek, eskola nahiz fakultate, gradu-ondoko titulazioak eskaini ahal izatea bermatu behar da.



2. GHEE: GOI HEZKUNTZAKO EUSKAL ZERBITZU PUBLIKOAREN DUINTASUNAREN INGURUKO MEHATXUAK ETA AUKERAK

Goi Hezkuntzako ministroen *Bolognako deklarazioak* (1999) Goi Hezkuntzaren Europar Eremua sortzeko prozesuari hasiera eman zion eta bere horretan unibertsitate hezkuntzan hobekuntza nabariak sor zitzakeen elementuak bazituen; hala ere, interpretagarriak dira eta unibertsitate zerbitzu publikoarentzat mehatxu izatera ere hel daitezke.

2.1. Aukerak

Konparagarria den titulazio sistema eta kreditu sistema komuna ezartzeak (*European Credit Transfer System* –ECTS-) ahalbideratu dezake, esate baterako, herrien arteko ikasketen eta titulazioen homologazioa eta horri esker ikasleak mugikortasun handiagoa lor dezake eta, behin ikasketak bukatuta, batetik bestera mugitzea. Bata bestearen atzetik doan bi ziklotako goi-mailako hezkuntzan egitura berria izateak (gradua eta masterra), hein batean, aukera hobia izan daiteke gaur egungo epe luzeko eta epe ertaineko titulazioen aldean. Metodologian eta ebaluazioan aldaketak egitea guztiz egokia da, ikaslearen ikasketa prozesua askoz ere parte hartzaileagoa izan dadin.

Goi Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeko prozesuan, Euskal Herriko unibertsitate guztiak kohesionatzeko aukera pribilegiatua egon daiteke, esate baterako, gradu eta gradu-ondoko titulazio komunak sortuz, elkarrekin sortutako taldeetan ikertuz edo euskarra berreskuratzeko politikan sinergia garrantzitsuak sortuz.

Lehenengo adierazpenaren ondoren, beste batzuk etorri ziren (Praga 2001, Berlín 2003...) baina “Europar unibertsitateak eraberritzeko Agenda” Europar Batasuneko *Lisboa estrategiarekin* lotura zuzena zuena ere. Adierazpen horietako formulazio batzuk goi-mailako hezkuntza hobetzeko aukera onak izan daitezke: bizitza osoan ikasten ari garenen kontzeptua edo ikasketa planak egiteko unibertsitateei autonomia handiagoa aitortzea, kontu emateko sistema hobetzen den neurrian esaterako, honen adibide garbiak dira.

2.2. Mehatxuak

Mehatxu nagusia **goi-mailako hezkuntzan pitzadura handia** sortzea da. Ikasketen zati batek –batez ere gradu-ondo-

koen zati erreferentzial bat— **elite exekutiboa** sortu ahal izango luke, bai bertara sartzea oso garestia izango litzatekeelako, baita enpresekiko sortuko lukeen menpekotasun zuzenagatik ere. Besteak, gehiengoarenak, **lan esku prekariora sortzeko** helburua izango luke edo etorkizun aukera handirik gabeko gazteak sortuko lituzke soil soilik.

Ikasketa planetan ikasleak lan mundura sartzeko helburua islatzea ezinbestekoa da. Baina lehen aipatutako pitzadura sortzea hezkuntza estrategia guztiz diskriminatzailea izango litzateke eta, gainera, etorkizuneko profesionalen kalitatean unibertsitatearen ekarpena murriztuko luke.

Eskema horretan, behin eta berriz errepikatzen diren malgutasun profesionala edo egokitzeko gaitasuna bezalako kontzeptuak edo *bizitzan zeharreko ikasketa prozesua*, mehatxu izatera hel daitezke. Kontzeptu horiek esanahi bakarra izan dezakete soil soilik: gradu-ko zenbait ikasketa merkatuaren uaneaneko eskariei erantzuteko oinarri-oinarrizko ikasketak izatea, eta gero birziklatzeko ikastaro azkar eta motzak egitea merkatuak jasan dituen aldaketei egokitzeko, beti ere lan baldintza oso eskasen baitan.

Eta, eskema horren barruan, *ikasketa planak egiteko autonomia/geroko kon-*

tu emateko sistema binomioak bere baitan ezkuta dezake “jarritako helburuen betetze maila gorena”/ “baliabideak lortu eta finantzatzea” bestelako binomio hau, eta horrela, diskriminazio itzela sortuko litzateke giza/finantza baliabideak eta azpiegiturak eliteko ikastetxeei emanez.

2.3. Europar testuingurua

Horiek ez dira hausnarketa abstraktuak. Gaur egun indarrean dagoen europar eraikuntzan —Goi Hezkuntzaren Europar Eremua bere baitan duen— zerbitzu sozial, hezkuntza edo osasuneko gastu soziala gero eta murriztagoa da (edo bere hartan gelditzen ari da) eta gero eta handiagoa da segurtasunean eta kontrol sozialean egiten den gastua.

Testuinguru horretan, unibertsitate zerbitzuaren “bikaintasuna” neurtzeko irizpide nagusia “kanpoko baliabideak lortzea” deritzona bihurtu da. Baina, bene-benetan, askotan bikaintasun hori unibertsitateko ikasketa eta ikerketa planak kanpoko baliabide horiek eskaintzen dituzten enpresen nahia betetzera murrizten da. Europar eta espainiar unibertsitate publiko askotan, elitizazio eta merkantilizazio horren ageriko aztarnak daude.



Horrekin batera, instituzio publikoek disimulorik gabe laguntzen dituzte unibertsitate pribatuak, unibertsitate pribatu horien ikasketa plan eta sistemak eta garatzen dituzten ikerketak enpresen exigentzi soiletara makurtzen direla jakinik.

Testuinguru horretan, nahiko kezkarria da Eusko Jaurlaritzaren jarduera ikerketari dagokionez. Ez du UPV/ EHUko ikerketa behar den bezala laguntzen, EAEko ikerketa gune nagusiena bada ere, eta baliabide garrantzitsuak zuzentzen ditu unibertsitate pribatuetara eta Teknologia Zentroetara (Industria, Merkataritza eta Turismo Saila).

Goi Hezkuntzaren Europar Eremuko eratze prozesua seriotasunez hartuz gero, EAEko I+G+B gastua handitu beharko litzateke (gaur egun %1,4koa, Europar Batasuneko batez bestekotik oso azpian), ikertzeko azpiegiturak hobetu beharko lirateke, ildo berriak sustatu beharko lirateke gizarte-zientzietan zein zientzia esperimentaletan. Horretan UPV/EHUK zeregin garrantzitsua dauka eta gaur egungoa ez den bestelako estrategia bat jarri beharko litzateke abian gure herriko dinamika sozial eta produktiboaren erronkei aurre egin ahal izateko.

2.4. UPV/EHUko dinamika kezkarri batzuk

Gure artean ere badira horietako sintoma kaltegarri batzuk. Egokia da Diputazioa bezalako instituzioek unibertsitate publikoko azpiegiturak finantzatzeko baliabide garrantzitsuak inbertitzea erabaki izana. Baina, hala ere, UPV/EHUK Eusko Jaurlaritzaren partetik jasotzen duen tratuak aldekoagoa izan beharko luke bai baliabideak emateko orduan zein inguruko unibertsitate pribatuei ematen dien tratuekin alderatuta.

Enpresei ezagutza bideratzea onuragarria dela uste badugu ere eta, beraz, horren aldeko izan, gure unibertsitatean, **zenbait kasutan, ikerketa enpresentzako zerbitzu hutsa bihurtzen ari da** (edo instituzioentzat), finantziazio eta norbanakoarentzako diru sarreren truke.

Ildo horretan, egungo zenbait Masterren kostuak defendatu ezinak dira unibertsitate publiko batentzat. Are gehiago, bere edukiak irizpide akademikoen arabera baino Master horiek babesten dituzten enpresen formazio beharren arabera zehazten direnean. Eta, benetan, arriskua dago etorkizunean esanguratsuak diren gradu-ondo “profesionalerako” sarbideak enpresen eta enpresa eliteen formazio estrategien kontrolpean gelditzeko.

Unibertsitate bakoitzak titulazioak modu askean “diseinatu” eta erregistratzeko sistema ezin da inondik inora izan ikastetxe edo sail bakoitzeko sukalde arduradunek nahi duten menua osatzeko aitzakia. UPV/EHUK guztiz parte hartzailea den dinamika sortu behar du non:

- Gradu eta gradu-ondokoen formazio beharrak unibertsitate mailako irizpideen bidez finkatuko diren eta horien baitan izan behar da, agerikoa den bezala, lan munduan sartzeko aukera.
- Irizpide horietan oinarritua, helburuak ezarri eta helburuak garatzeko prozesu gardenak sortuko diren
- Helburu eta prozesu horiek betetzeko, irakasleak hezitzeko eta birziklatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarri, honek duen kostua asumituz.

Hori guztia ez da ameskeria hutsa. Gaur egun indarrean daude UPV-EHUn horrelako irizpideetan oinarritzen diren gradu-ondo eta titulazioak.

2.5. Ikerketa feminista eta genero ikerketaren aldeko apustua

Aurrean dugun erreforma hau UPV/EHUrentzat aukera bat izan daiteke unibertsitate alorrean genero ikuspuntua alderantzizko apustua egiteko. Badaude hautazko irakasgaien artean eskaintza isolatuak, eta baita berdintasunezko teknikari izateko berezko titulazioa ere,

baina badira, batez ere, zenbait pertsona, emakumeak, batik bat, beraien ikerketa eta irakaskuntzan genero ikuspuntua sartzen dutenak, lan hori sarritan aitortzarik gabe gelditzen bada ere. Baina Genero Ikasketak eta Ikasketa Feministak ez dira, ofizialki, UPV/EHUko ekintza akademikoetan sartzen.





Ezin dugu aukera hau galdu. UPV/EHUK apustua egin behar du alde batetik, eskaintzen dituen gradu titulazio guztietan zehar-konpetentzia gisa genero ikuspuntua sartzearen alde; eta bestetik, Ikasketa Feministak eta Genero Ikasketei buruzko gradu-ondo ofizial bat sortzearen alde. Biek ala biek gaur egun egon badauden ekimen horiek guztiak bildu beharko lituzkete eta maila ofizialean aitortu.

2.6. Euskera UPV/EHUn

Goi Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzea eta hizkuntza normalizazioa

Gure unibertsitatea Goi Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeko dauden mehatxu merkantilista eta elitistak ez daude euskarazko ikasketa eskaintzatik kanpo.

Lehen aipatu dugun bezala, goi-mailako hezkuntzan gradu-ondoak gunerik garrantzitsuena izango direla nahiko argi dago, gutxienez prestigio handiena beraiek izango dute, eta, alde batetik, gradu-ondo “profesionalak” enpresa interesen menpe jartzen badira; bestetik, gradu-ondo “akademiko” asko beste unibertsitateekin elkarlanean diseinatzeko badira hitzarmenen bitartez (matriculazio nahikoa lortu ahal izateko); eta, azkenik, ikerketa proiektuetan euskararen erabilera gaur egungo doktoregoe-

na bezain marjinala baldin bada, unibertsitateko zerbitzu publikoan euskarak duen presentzia murriztu egingo litzateke gaur egun duenarekin alderatuta, nahiz eta graduatan izango lukeen presentziari buruzko datu onak eman.

Horregatik, **euskararen Plan Gidari berria** egin behar da, gradu zein gradu-ondokoen titulazioetan euskararen presentzia bermatzeko, gizartearen eskaerari erantzuteko eta zerbitzu publiko gisa dugun zeregina betetzeko, horrela, euskal unibertsitate publiko izaera indartzuz.

Bata bestearen atzetik doazen bi ziklotan antolatutako sistema bakarrera pasatzeak sortzen dituen erronka berrietara egokitu gabe (gehi doktorego ikastaroak) hizkuntza plangintza ez da finkatuko.

Guztiz beharrezkoa da euskararen eskaintza desorekatua orekatzeko neurriak hartzea, baina gure hizkuntza normalizatzeko unibertsitatean eskaintza elebidunetik haratago doazen neurriak ere hartu beharko dira: euskarazko irakaskuntza materiala sortzea eta publikatzea sustatzea, ikerketan euskararen presentzia bultzatzea eta doktorego tesiak euskaraz irakurtzea indartzea. Euskararen normalizazioan aurrera egiteko, pauso guzti horiek dira beharrezkoak.

EUSKERA UPV/EHUn: egungo egoera

EHUn euskarazko irakats eskaintza handitzen jarraitu beharra dago, inongo zalantzarik gabe. Eta hau honela da alde batetik euskarazko eskaria gero eta handiagoa delako eta bestetik titulazio batzuetan oraindik gabeziak handiak direlako. Azken hamarkadan euskaraz ikasten duten ikasleen portzentaia 22.6 puntutan igo da: %27.2tik 1995/1996 ikasturteak, %49.8ra 2005/2006an. Bost jakintza arloak begiraturuz gero 2006/07 ikasturtean sartutako ikasle berrien portzentaia altuena Zientzia Esperimentaletakoa da (%46) eta baxuena, nabarmen ikasketa teknikoetakoa (%31.1).

Euskarazko irakats eskaintzari erreparatzen badiogu, EHUn eskaintako kreditu guztien %70a inguru euskaraz eskaintzen da. Lehen zikloko derrigorrezkoen %74 a, bigarren zikloko derrigorrezkoen %55a eta lehen eta bigarren zikoetako hautazkoen %79a. Datozen hiru ikasturteetan titulazio guztietan gutxienez derrigorrezkoen eskaintza euskaraz bermatuta egon beharko litzatekeela uste dugu. Honetarako ezinbestekoa da irakasleen kontratazio berri guztiak elebidunak izatea.

Jakintza arloak aztertzen badira euskarazko eskaintza altuena Humanitateetakoa da (lehen zikloko derrigorrezkoen %96a, bigarren zikloko derrigorrezkoen %91a eta hautazkoen % 79a). Aldiz, portzentaje baxuenak Ikasketa Teknikoetakoak dira: lehen zikloko derrigorrezkoen %49a, bigarren zikloko derrigorrezkoen %23a eta hautazkoen %41a.

Ikasketa Teknikoetan dagoen eskaintza urria, jakintza arlo honetan dagoen euskarazko ikasle portzentaje baxuaren atzean dagoela uste dugu, irakaskuntza eskaintzak bere eskaria bultzatzen du eta. Beraz, titulazio ezberdinen azterketak erakusten du zeregin handiena ikasketa teknikoetan dagoela eta ahalegin bereziak egin beharko dira ingenieritzetako euskarazko eskaintza handitzeko. Baina beste arloetako titulazioak ezin dira alde batera laga. Ezta kreditu guztiak euskaraz eskaintzen dituztenak ere. Ez da ahaztu behar azken kasu hauetako irakasle elebidunen baldintzak ez dire-

la onenak izaten: maiz kreditu zama guztia euskarazko derrigorrezkoekin betetzen dute eta ez dute hautazkoak euskaraz eskaintzeko aukerarik izaten.

Euskarazko materialgintzak eta argitalpenek ere bultzada behar dutelakoan gaude. Azken hamarkadan euskarazko argitalpenen portzentajeak gora egin badu ere, igoeira irakats eskaintzarena baino askoz apalagoa izan da. Honela, euskaraz idatzitako liburuen portzentaia 2.3 puntutan igo da: 1995an %41.8koa zen eta 2004an %44.1koa. Aldizkarien portzentaia berriz 5 puntutan igo da nahiz eta euskararen presentzia liburuetan baino nabarmen baxuagoa izaten jarraitu: 1995an argitaratutako aldizkarien %13.8 euskarazkoak ziren eta 2004an berriz %18.8a. Zaila da euskarazko argitalpenak sustatzeko neurriak asmatzea, are gehiago kontuan edukita jakintza arlo gehienetan ze balio gutxi daukaten irakasleen curriculumean. Eta hau aldatzen ez bada, euskarak ez du ikerketan inolako presentziarik edukiko eta irakaskuntzara mugatuta geldituko da. Irakaskuntza orduak murrizteko irakasleen errektoreordetzak proposatu eta Gobernu Kontseiluak onartutako merituek aitortzeko programan onartzen da ISBNa daukaten euskarazko argitalpenak baloratuko direla baina seguruenerik neurri gehiago pentsatu beharko dira. Oso garrantzitsua izango da Uniqualek honen inguruan izango duen jarrera.

Euskaraz egindako doktorego tesien kopurua urtez urte nahiko finko mantentzen da. Hamabi ziren 2000/2001 ikasturtean eta 12 izan dira baita 2004/2005ean ere. Portzentajea ere ez da ia aldatu eta oso baxua izaten jarraitzen du: euskarazkoak, 2004/2005 ikasturtean defendatutako tesi guztien %5.5a besterik ez dira izan. Irakasle elebidunen portzentaia berriz %31.6koa da. Beraz, elebidun askok tesia egiterakoan ez dute euskara aukeratzen. Gainera tesietako epaimahaikidea izateko onartu diren azken aldaketek ez dakigu kaltegarriak izango diren euskarazko tesi produkzioa bultzatzeko baina seguru gaude, lagundu ez dutela inolaz ere lagunduko.

2.7. Bikaintasuna hobekuntzen kontrako hesi burokratikoa bihurtzen denean

UPV/EHUK duen beste sintoma kaltegarri bat honakoa da: *kalitate eta bikaintasun* kontzeptuak hobekuntza helburu errealek izatek hesi burokratiko elitistak bihurtzera igarotzea. Irakasleen formazioa, hezkuntza eskaintza berriak eta ikerketan inplikaturako irakasleen kopurua zabaltzeko ahaleginei buruz ari gara, batez ere.

Baina horri buruz hitz egiteko, **hobetzeko helburuak jartzeko orduan, gaur egun egon dauden egoeretan oinarritu behar da, betetako maila eta bete gabekoak kontuan hartuta**. Oinarri horiek guztiak kontuan hartuta saritu behar dira hobekuntza helburuak garatzea; esanguratsuagoak diren aurrerapausoak egin behar direnean, baliabide bereziak sortu behar dira; onartezinak diren egoerei uko egin behar zaie. Hala ere, zenbait kasutan eta zenbait egoeratan, UPV/EHUKo zuzendaritza administratibo eta akademiko gorenetik, nahiz bitarteko zuzendaritza eta ordezkari organoetatik, ikuspuntu elitista batetik osaturako bikaintasunaren ikuspegi baten arabera jarduten dute, non seiurtekoak, katedratikoak eta ikerketa proiektuen zuzendaritza besterik ez dute ikusten.

Ezinbestekoa da irakaskuntza eta ikerketa curriculumaren garapena bultzatzea eta eskuraturako ezagutza sustatzea eta errespetatzea. Baina astakeria da curriculumaren parametro altuenak ezinbesteko baldintza bihurtzea hobekuntza proiektuak burutu ahal izateko. Eta, hala ere, hori gertatzen ari da, esate baterako, Unibertsitate Eskoletako proiektuetan, ikerketa proiektuak kontuan hartzeko eta finantzatzeko. Beste adibide bat irakaskuntza orduak murrizteko merituek aitortzeko programan ikus dezakegu. Gutxieneko ikerketa meritua batzuk izan behar dira kudeaketa eta irakaskuntza merituek aitortzeko eta, aitzitik, modu automatikoan aitortzen dira ikerketa merituek, egindako irakaskuntzarekin lotu gabe. Beraz, kudeaketa eta irakaskuntza gutxietsi egiten dira. Horrek guztiak **unibertsitateko egituretako bizitzaren eliti-**





zazio burokratikoa bultzatzen du, eta prozesu hauetatik kanpo gelditzen diren irakasleen absentismoa. Ondo eginda gisa honetako neurriak hobekuntza ekimenetako parte hartzea handitu eta gure unibertsitate publikoko partaide izatearen balio korporatiboa indartuko lukete.

Urak ez du zertan bide horretan jarraitu. Zorionez, UPV/EHUK badu nahikoa sendoa den lurra zerbitzu publikoko irizpideak nagusi izateko bai irakaskuntza planetan zein bere ikerketa proiektuetan. Lur sendo hau baliagarria izan daiteke Goi Hezkuntzaren Europar Esparrura egokitzeko sasoi honetan UPV/EHUKo berezko ezaugarriak indartzeko kalitate handiko unibertsitate gisa.

Baina **sekulako hutsegia izango litzateke aurretik aipatutako mehatxuak kon-tuan ez hartzea edo pentsatzea unibertsitateko berezko erritmoa nahikoa izango dela mehatxu horiek urruntzeko**. Goi-mailako euskal hezkuntza zerbitzua duintzeko politika unibertsitarioa beharrezkoa da, lehen aipatu dugun gai bakoitzari aurre egin ahal izateko.

Politika honen buru zuzendaritza organo gorenek eta unibertsitate ordezkari-ek izan behar dute Errektore Taldea buru dutelarik. Baina, egia esanda, gure ustez gaur egungo Talde Errektorak gidatutako zenbait egitasmo, hitzaldi eta adierazpenek elitismoa parte hartzearen gaineratik jartzen dute eta bikaintasuna hesi burokratiko bihurtzen dute hobekuntza helburua duten benetako proiektuen kaltetan.

3. EUSKAL UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN DUINTASUNA INDARTZEA GIZARTE INSTITUZIO GISA

3.1. Euskal Herrirako bakea eta demokraziaren alde lan egiteko konpromisoa

Pasa den abenduaren 30ean, Barajasen, ETAK egindako atentatuak, elkarrizketa eta negoziazioaren bidezko bake eta normalizazio politikorako prozesua dinamitatu zuen, ETAK berak 2006ko martxoaren 22an adierazitako su-eten iraunkorraren bidez irekitako prozesua.

Zoritzarrez, prozesu horretan inplikaturiko eragile nagusiek, ETA eta Gobernu zentralak, bereziki, baina baita ere gaineratiko erakundeek eta partidu politikoez, ez zuten seriozki lan egin prozesua garatzeko ezinbestekoak ziren oinarri eta euskarri sendoak jartzeko: ez da eman gatazka gizatiartzeko urrats zehatzik (ez presondegi-politikari, ez biolentziaren biktimei dagokienez), biolentzia politikoko zenbait ekintzek jarraitu dute eta ez da ezer aurreratu. Batasunak ordezkatzen duen gizarte-multzook eremu politikoan legalki jarduteko bermeei dagokienez.

Su-eten eta Gobernu zentralaren hasierako erantzun positibotik abiatutako

prozesua jasaten ari zen urradurari, eraispen-efektua gehitzen dio Barajasko atentatuak. Atentatua azaltzeko ETAK iragarritako adierazpenak etorkizunari begirako aukerak iluntzen ditu, horrelako ekimenak burutzeko aukera zabalik uzten baitu.

Baina bake eta normalizazio politikoren defentsak, ezinbesteko helburua izaten jarraitzen du gure gizartearen osasun demokratikoari begira. Errepresio hutsean oinarrituriko estrategia eta diskurtsoa, Espainiako eskuinak amesten duen ildoan izan daiteke, baina elkarbizitzaren ustelketa besterik ez du ondorioztatzen.

ETAri exijitzen diogu behin betiko su-etenerako prozesuaren hasiera adieraz dezala, eta bitartean, berma dezala ez dela hilketarik ez biolentzia politikoko adierazpenik izango; testuinguru horretan, Estatuak eta Gobernu zentralak ETA elkarrizketakidetzat hartu behar dute behin-betiko su-etenerako prozesu horren garapen tekniko, eta bertan sartu beharko diren gatazka leuntzeko presondegi-politikako neurriak, negoziatzeko. Bakearen defentsan, hori da ETAri dagokion eremua.





Demokraziaren defentsak, aukera politiko guztiek eremu publikoan zein hauteskunde-eremuan defendatuak izateko duten eskubidea onartzea eskatzen du; Batasunak ordezkatzeko duen gizarte-multzoa eremu horietatik baztertzeak (eta ezin ahaztu Partiduen Legea horretarako egina dela) ondorioztatzen duen defizita gainditu beharko da testuinguru demokratikoaz hitz egin ahal izateko.

Bestaldetik, aukera politiko guztien defentsa, tutoretza edo mehatxurik eta aurrebaldintzarik gabe burutu behar da. Ez Euskal Herri osoko lurraldetasuna, ezta Konstituzioaren mugak, ezin dira aurrebaldintzak izan akordioak lortzeko asmoa duen partiduen arteko elkarrizketa zabalari begira. Eta bertan lortutako akordioak zein desadostasunak, euskal gizartearen erabakiaren menpe egon beharko dira.

Hauxek dira, **STEE-EILAS**en iritziz, gure gizarteak behar duen bake eta normalizazio politikoa lortzeko bideari bultzada emateko ildoak. Eta UPV/EHU aktiboa izan behar du bide horretan.

Agerikoa da gure unibertsitateak ezin duela eragin eragileen ikuspuntu aniztasunean, ezta beraiek garatuko dituzten estrategietan ere. Baina unibertsitate publikoak hiru alor hauetan parte hartu beharko lukeela uste dugu:

- Esklusiorik gabeko elkarrizketa behin eta berriro eta era publikoan baldintzarik gabe defendatuz, aukera guztiak bide demokratikoen bitartez lortzeko eta defendatzeko xedearekin;
- Alor guztietan gatazka gizatiartuz edo humanizatuz, horien artean leku garrantzitsua izan behar dute ikasketa unibertsitarioak egiteko ikasle presoek duten eskubidea berreskuratzeko ahaleginek;
- Bake eta normalizazio prozesu baten garapena ahalbidetu eskatzen dioten ekintzak erraztuz, berarentzat proposamenak eginez, komunikazio bide edo espazioak eskainiz edo, bestela, zenbait kontutan instituzio bitartekari lanak eginez.

3.2. Nazioarteko Lankidetzan eta ekosistemaren defentsan inplikatzeko unibertsitate zerbitzua

Apokalipsi berri bat izango balitz bezala, harena bezain mehatxagarriak diren lau zaldiren gainean datorkigu globalizazioa: mendebaldeko interes eta interentzioen eraginagatik sortutako Afrika eta Ekialdeko gerrak; gosea, egarria eta HIESa, afrikar kontinenteak jasaten dituen hiltzeko hiru arrazoi nagusiak;

gero eta ekosistema gehiago suntsitzea, giza bizitza bera baldintzatu dezaketena barne; garatuta dauden herrietako kanpoaldera milioika lagun behartutako emigrazioa. Ezagutza, formazioa eta ikerketa ez dira nahikoak arazo horiei aurre egiteko. Baina horiek gabe ere ez ditugu gaindituko. Unibertsitate publikoa ezin daiteke izan merkatu interesek ezarritako dinamika globalizatzaile eta ankerraren beste eragile bat. Unibertsitate publikoarentzat ezin da nahikoa izan %0'7 defendatzea edo gauzatzea, nahiz eta horretan ere konpromisoa hartu behar duen; unibertsitate **publikoak lankidetzaren eta elkartasun irizpideen baitan planifikatutako ikerketa eta formazioa garatu** behar du eta giza, finantza baliabideak eta baliabide materialak gorde behar ditu eginkizun horretarako.

3.3. Badago zereginik genero diskriminazioan unibertsitatearen baitan

Orain dela gutxi sortu da UPV/EHUn Berdintasun Zuzendaritza, sorrerak berak agerian uzten du diskriminazio egoerak egon badaudela unibertsitatearen baitan, eta horiek desagertarazteko bitartekoak jarri eta neurriak hartu behar direla.

Berdintasun formalaren azpian eta atzean desberdintasun erreala dagoenez, garrantzitsua da unibertsitatea erreferente izatea egoera hauek salatzeko orduan eta gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzea ahalbidetuko duten neurriak hartzeko orduan.

3.4. EHU eta software askea

EHUk, ezagutzaren instituzio publiko gisa, software askea babesten eta zabaltzen gogotsu parte hartu beharko luke. Gure unibertsitateak konpromisoa hartu behar du software librearekin batera datozen askatasun eta parte hartze helburuekiko eta hura garatu eta bultzatzen duten plataformak lagundu beharko lituzke. Gainera, pribatua den softwarea ez luke bultzatu beharko, instituzioaren zein norbanakoen egunerokotasunean, bai irakasle edo ikertzaile gisa bai administrazioko eta zerbitzuetako langile gisa.

EUSKAL UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN
DUNTASUNA INDARTZEA
GIZARTE INSTITUZIO GISA



3.5. Gakoa: dinamika eta prozesu parte hartzaileak

Beharbada irakasle eta ikerlarien ahuldade nagusienaren erakuslea prozesu parte hartzaileen eskasia da. Egon direnetan, joan den ikasturteko bi grebetan, esate baterako, eraginkortasun handia izan dute. Aurrean dauzkagun erronkak gainditzeko beharrezkoa da **erabakiak hartzeko orduan prozesu parte hartzaileak sortzea**. Bolognako deklaraziotik hasi eta azken zazpi urtetan, Goi Hezkuntzaren Europar Eremuari buruz gure gizartean egon den debate eskasa nahiko adierazgarria da. Eta eztabaida hau ezinbestekoa da gure unibertsitateak behar dituen aldaketak modu eraginkorrean jorratu nahi baditugu, euskal gizartearen eskariei modu egokian erantzuteko.

UPV/EHUK egin beharreko gradu eta gradu-ondoen titulazio eskaintza unibertsitateko sektore guztiek (ikasleak, AZP eta irakasleak) eta gizarteko ordezkariak parte hartuko duten eztabaidaren emaitza izan beharko litzateke

Unibertsitateko instituzio guztien lana da prozesu parte hartzaileak bultzatzea. Sindikatuena ere bada eta **STEE-EILAS**ek ildo horretan lan egiteko konpromisoa hartzen du. Funtsean, konpromiso honek lotzen ditu hauteskunde programa honetan adierazi ditugun gainerako kezka eta konpromiso guztiak. Izan ere, helburuak definitzean eta erabakiak hartzean komunitate unibertsitarioak parte hartzea –eta irakasleena, zehazki– da, gure ustez, Euskal Unibertsitate Publikoaren duintasuna bermatzeko oinarritzko baldintza.